

B

BARREN

TOKIKOM

Jai hotsak



K.E.Y. hizkuntza akademia

Trenbide kalea, 19 behea - Tel: 943 74 30 44 / 653 825 606

Ekainaren 25etik uztailaren 20ra ingeleseko ikastaroak goizez.

- Haur eta gazteentzako eskolak orokorrean.
- Laguntza eskolak: - Lehen hezkuntza
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
- Batxilergoa.
- Crambridge azterketen prestakuntza



CAMBRIDGE Unibertsitateko
Azterketetarako Batzordeko kidea ES438



◆ 2012/2013 ikasturterako matrikula zabalik.

◆ Haurrak eta gazteak, ingelesa, frantsesa eta alemana.

◆ Cambridge azterketen prestakuntza: Young Learners, Ket, Pet, First Certificate, Advanced

◆ Laguntza eskolak: Lehen hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa

TXIKI EGUNEKO BAZKARIA ELGOIBARKO IZARRAREKIN

Bazatuz bazkaltzera
txarangaren kalejira amaitu ondoren?
17:00etan, Sigmako aparkalekuan
Animatu, primeran pasako dugu-eta!

MENUA:

- Lehengo platera: arroz-entsalada
- Bigarren platera: okela gisatua patatekin edo barazkiez betetako berenjena gainerreak
- Postrea: Gazta-tarta
- Edariak: Sagardoa, ardo beltza eta ura

19 €

17 €

Elgoibarko
Izarrako
bazkideek

Izenematea Elgoibarko Izarran
edo Internet bidez egin behar da
(www.elgoibarkoizarra.com)
(Izema emateko azken eguna uztailaren 13a.
Izema ematean aukeratu behar da
bigarren platera)



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA



Joanes
Rodriguez

Zerbaitetan sinistea omen da garrantzitsue-
na, Maialen; fedea izatea. Izan dira mu-
garriak jartzen ez zizkie-
nak (Ama Teresa eta Ghandi), baina baita mugarri asko jartzeagatik izugarizko tris-
kantzak egin dituztenak ere (irailaren

11ko erasoak edo Rwandako eta Bosniako genozidioa). Modu natu-
ral eta inozo batean... Zerk bultzatzen du gizakia horrelako bidega-
bekeriak burutzerara?

Badira gaur egun gure hiztegian *trend topic* diren hitzak, krisia edo etorkizuna esaterako. Atsekabea ere nabaria da, aipatzen ez bada ere. Hiru hilabete pasa ditut kanpoan, etxetik urrun, beste errealtate batzue-
tan borrokan, tokian tokiko mundu kideen ametsak eta nahiak bidera-
tuz, euren ere aukerak badirela adierazi nahian. Txina, India, Tailan-
dia... 13.000km erraz, eta miloi bat esperientzia baino gehiago seguru. Eta etxera itzultzean berriz ere nabarmena atsekabea. Ez gara gizaki guztiok berdinak? Zergatik da gure sufrimendua horren ezberdina?

“Gure borondatearen eta nahiaren menpe gaude, Maialen; preso”

Ezbehar naturalak eta artifizialak, psikologikoak eta fisikoak... baina guztiak ere ezbeharrik. Norbaiten izenean, kasualitatez, nahita... Bizit-
zak jartzen dizkigun proba guztiak gaudituz behar izan dituen gizarte ba-
ten ondarea gara, 21. mendean aurrera egin behar duen belaunaldia izatea tokatu zaigu. Sekula baino “humanoagoak” izanda, eta naturak eman digun indar natural honi esker, dena delakoa parean jarrita ere, gu-
da irabazteko prest! Azken finean, norgehiagoka bat irabaziz jaio ginela-
ko fedea eta sinesmena dut nik, edo? Gure borondatearen eta nahiaren menpe gaude, Maialen; preso.



Maialen
Arnedo

Etorkizuna bezalako berba handi baten barnean murgildurik bizi gara bai, Joanes. Iraganeko pausoak gogoan izanda aurrerako bi-
dea jarraitu nahian igarotzen dugu denbora.

Umetan, bi aulki eta toalla batekin etxe handi bat eraikitzen genuen, bere sukalde eta guzti! Orain, “helduen betaurrekoak” jantzi eta iru-
dimenaren mundutik ihes egiten dugu. Benetako etxe bat nahi dugu, benetako sukalde bat.

Askotan iraganera salto egin nahiko nuke eta haurrak ginenean geneukan ilusioa berreskuratu. Orduan helduei begiratzen nien, beste mundu batekoak izango balira bezala. Amama dut gogoan, sukaldean. Emakume handia zen bera, ile kizkur eta begi argikoa. Askotan adi-adi begiratzen nion eta berak irribarre egiten zidan, amantalean eskuak sikatu eta bere beso artean hartzen ninduela. Zenbat sekretu eta bizipen gordeko ote zituen bere amantal horre-
tako poltsikoetan! Baina, pasatako zailtasunak ondo gorderik zitue-
la, egun bakoitza bizi zuen berak, ondoan zituenei zoriontasuna ku-
tsatuz.

“Amamaren amantala jantzi nahi nuke, eta bere barrea nire aurpegian josi”

Miretsi egiten nuen amama, eta miresten dut oraindik ere, nahiz eta askotan, itsu-itsuan, neuk ere etorkizunean pentsatzen dudana, izango dudanaren eta izango naizenaren argazkia irudikatzen saiatuz. Gaur, amamaren amantala jantzi nahiko nuke, eta bere barrea nire aurpegian josi, eguneko bizi. Iraganetik etorkizunerako bidaia-txarte-
la ordaintzeko prest gaude, orainak zenbat balio duen konturatu ere egin gabe. Lehenagokoa ahaztu gabe, eta gerokoa geroko utziz, bizi gaitetzen zoriontsu eta aprobetxatu dezagun gaurkoa, Joanes.



ESKERTZA

CRUZ AGUIRRE GOYOGANA

2012ko maiatzaren 25ean hil zen, 79 urte zituela Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Ondo bidean 2013-2014 ikasturte hasierarako bukatuta izango dituzte Herri Eskola handitzeko obrak

Eusko Jaurlaritzak 1.812.404 euro jarriko ditu ikastetxea handitzeko proiekturako

Bukatu dira luzapenak. Eusko Jaurlaritzaren Aldizkari Ofizialaren arabera, lehiaketara aurkeztu dute jada Herri Eskola handitzeko proiektua. Behoko jolastokia estali, eta gela berriak eta gimnasio bat eraiki asmo dute Herri Eskolan, eta Eusko Jaurlaritzak 1.812.404 euro (BEZa barne) jarriko ditu horretarako. Aldizkari ofizialean jasotako informazioaren arabera, lehiaketa irabazten duenak obra esleitzen zaionetik bederatzti hilabeteko epea izango du lan horiek egiteko, eta horiek ondorioztatu daiteke handitze lan horiek bukatuta egongo direla 2013-2014 ikasturtea hasten denerako.

Matrikulazio kopuruak gora egin du azken urte hauetan, eta Herri Eskola txiki gelditu da. Horren ondorioz, zenbait ikasle gela prefabrikatuetan daude gaur egun. Ikastetxea handitzeko obrak, berez, Irakaskuntza Publikoko Ikastetxeak Hobetzeko 2008-2012 Planean jasota zeuden, baina Jaurlaritzak luzamendutan ibili da azken urte hauetan. Hori dela eta, bai Herri Eskola bertako guraso elkarteak



eta baita udal agintariak ere hainbat kexa agertu dituzte azken urteotan Jaurlaritzara, zuzenean nahiz zeharka. EAJK, esate baterako, Garbiñe Mendizabal legebiltzarkidearen bidez eraman zuen gaia Legebiltzarrera, eta Javi Nuñez PPko zine-

gotziak ere galdera sorta bat bidali zion Isabel Celaa Hezkuntza sailburuari. Nuñez erantzunez, Celaak esan zuen obrak 2013-2014 ikasturtean zehar egingo zirela, baina ez zuen beste zehaztapenik eman.

Jasone Osorok jaso du Debegesaren Debarrena Ekinean! saria



Debarreneko gaitasun ekintzailea nabarmentzeko eta ekintzaileen arteko esperientzia eta ezagutza-trukaketa ahalbidetzeko, Ekintzaileen Eguna ospatu zuen Debegesa garapen agentziak eguaztenean. Ekitaldi hori Debarrene-

ko ekintzaileen lana aitortzeko eta sartzeko baliatu zuten, eta beste zenbait ekintzaren artean, Debarrena Ekinean! eta Bai Industriari! sariak banatu zituzten. Saridunen artean, iraunkortasun-nekaezintasun saria eman diote Ja-

sone Osoro idazle eta kazetari elgoibartarrari. Jasone Osorok 2010ean Berbak, www.berbak.net, izeneko enpresa sortu zuen, idazle zerbitzuak eskaintzeko. Berbak-en lan-tresna hitza da, testua, edukia; eta bezero bakoitzaren beharretara egokitzen da kasuan kasuko proposamena eginez. Gainerako atalategitan, ondorengoak saritu dituzte: Fadi Domit artisaun-arrantzaile mutrikuarrari Plus Ekimena saria eman diote, eta Debarreneko ekintzaile talde batek abiatu berri duen Ekingune egitasmoak jaso du Talde Lana errekonozimendua. Bai Industriari! errekonozimendua, aldiz, Ermuko Soluciones de plástico y magnesio enpresak jaso du.

Ekitaldia **Ohorezko matrikuladunak**

Argazkiko bederatzi neska hauek Elgoibar BHI Institutuko ikasleak dira, ikasle finak, gainera, ohorezko matrikula jaso dutelako guztiek. Hau da, argazkiko neskek 9,5etik gorako bataz besteko nota lortu dute Batxilerrean. Zoritxarrez, ehun ikasletik bosti barruk ematen diote ohorezko matrikula, beraz, hauekako bi saririk gabe gelditu dira. Argazkian, goian, ezkerretik eskubira: Garazi Ayesta, Bidane Gonzalez, Jone Zubiaga, Nora Urbieto, eta Laura Lopez. Eserita: Ane Astiazaran, Lore Mendizabal, Amaia Sorazu, eta Itxaso Valero.



Ekitaldia **Renault Twiz kotxe elektrikoa**

Renault Twiz kotxe elektrikoa aurkeztu zuten eguaztenean MEKA GLHBI ikastetxean. Hiru ikastetxek parte hartu zuten aurkezpen horretan: Don Boscok, Aretxabaletako institutuak, eta Mekak, merkaturatzen ari diren lehenengo ibilgailu elektrikoaren ezaugarri tenikoak ikastetxeko ikasle eta irakaslearen artean zabaltzeko helburuarekin. Renault Twizen aurkezpen ekitaldian ibilgailu elektriko horren berezitasun teknikoaren berri eman zitzaion irakasle eta ikasleei. Meka institutuak aspalditik dihardu mugikortasun jasangarria sustatzeko lanean. Izan ere, bi urte badira Elgoibarko Udalarekin batera Emugi proiektuan murgilduta daudela.



'Biraka radio show' dantza ikuskizuna

Biraka dantza taldeak ikasturte amaierako dantzaldia antolatu du datorren asterako. Eguenean eta barixakuan egingo dute, Herriko Antzokian, 20:00etan hasita. *Biraka radio show* izena jarri diote izena ikuskizunari, Biraka Irratiaren 60. urteurrena ospatzeko. 70 minutu iraungo du dantzaldiak, eta egungo musika ezagunenetarikoa entzuteko aukera izango dute Herriko Antzokira joaten direnek.

'Euskal hitz sakonak' izenburuko hitzaldia eskainiko du Leire Saituak

Urbizixak antolatuta, *Euskal hitz sakonak* izenburuko hitzaldia eskainiko du Leire Saituak gaur, 19:30ean, Elgoibarko Kultur Etxean.

Erretzaileentzako informazio gunea jarri zuten eguenean

Tabakorik gabeko Nazioarteko Egunaren harira, erretzaileentzako informazio mahaia jarri zuten atzo Kalebarren plazan, Osakidetza eta Minbi-ziaren Kontrako Elkarteak. Horri esker, norberaren biriken adina ezagutzeko aukera izan zuten erretzaileek, eta nikotinarekiko duten menpekotasuna neurtu ahal izan zuten.



Organo Emailen informazio mahaia ekainaren 9an

Organo emailen Nazioarteko Eguna dela-eta, Alcer elkarteak informazio mahaia jarriko ditu ekainaren 9an, Kalegoen plazan, 10:00etatik 14:00ak bitartean.

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com


BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arrieta, Noemi Otegi, Ainoa Sedano, Jesus
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga,
Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop.
E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-
1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Aupa, herrikide

Joan den maiatzaren 22ko hauteskundeetan abiatutako abentura bukatu berri dut. Atzo laga nion Elgoibarko zinegotzi izateari, eta dagoeneko notizia denon etxeetara iritsiko zen arren, ez nuke nahi abentura hau bukatu neure ahotik berba batzuk esan gabe. Urtebete honetan neuk espero nuena baino jende gehiagok jo duzue niregana, eta zuei bederen, zor dizkizuet berba hauek.

Gezurrik esateko ez diot ekin hau idazteari eta, beraz, esango dizuet sarritan nekagarria izan dela zinegotzi izatearen hori dena. Baina hala ere, atzera begiratuta azkar ahazten diren nekeak dira horiek.

Ohore txiki bat eta plazer handi bat izan da sarritan hau guztia. Osoko bilkura zenbaitetan lortsagabekeria bat baino gehiago ikusi dudan arren, beste zenbaitetan aspertu ere egin naizen arren, edota sarritan dokumentu administratibo luze eta ponposoek esaten zutena ulertzea kostatu zaidan arren, argi ikusi dut lan asko dagoela egiteko, eta poliki-poliki gauzak aldatuaz, Udaltik ere asko egin daitekeela.

Konfiantza osoa daukat alboan geratzen den Bilduko taldean. Pozik hartu nuen Maiteren izena; badakit-eta, ondo ez, hobeto egingo duela egin beharrekoa. Eta zerrendako besteengan bezala, nigan ere konfiantza boto txiki bat jarri zenuteno esan nahi dizuet aukia baino ez dudala lagatzen. Herri honek merezi duen moduan lanean jarraituko dudala Euskal Herri libre eta feminista ezkerretik eraikiz.

Lehen ere argi nuen moduan, uste dudalako instituzioetako lana herri hau eraikitzeko egin beharreko lan guztien artean bat gehiago baino ez dela. Eskerrik asko.

Ainhoa Mendibil Artetxe ☺

Zaborrak batzeko aukerak:

Europako legedia aldatu ostean, hiri-zaborren kudeaketaren inguruan momentu honetan badirudi bi ideia gailentzen direla: 5.edukioztia vs. atez atekoa. Alderdi politikoekin bat egin gabe, iritzia ematea nahi dugu honen inguruan. Ez dugu uste bata bestearen kontra egon behar direnik, organikoa aparte biltzen denez, egungo sistema baino hobekak baitira biak ala biak.

Baina, zer dira 5. edukioztia eta atez ateko

sistema? (era laburrean) 5. edukioztia: egungo lau kontenedoreen alboan beste bat jartzen da gai organikoak botatzeko, borondatea duenarentzat.

Atez ateko sistema, aldiz, guztiz bestelakoa da. Edukioztia kendu eta gaikako zabor bilketa egun ezberdinetan egiten da, iluntzetan. Tokatzen den egunean tokatzen den zabor mota jaitsi behar du herritarrek, eta guztiak daude gaikako bilketa egitera behartuak.

Lehenengo begiratuan, atez atekoa ez da hain erosoa, baina ikus ditzagun emaitzak: 5. edukioztia: %30 inguru birziklatzen da. Atez atekoa: %80 inguru birziklatzen da.

*Datuk ez dira alderdi politikoek emanak, datu objektiboak dira San Markos komunitateak emanak (ikus www.Elgoibarren.net-en Okil beltzen txokoa), eta Europako datuekin bat datoz.

Teorian bi aukerak berdinak izan arren (bietan gaika eta organikoa batzen da), emaitzek argi erakusten dute behartuta soilik lortzen direla emaitza hobekak. Halere, esan behar dugu, atez atekoa zaborrik ez sortzetik askoz gertuago egon arren ez dela nahikoa, baina hori aurrerago aztertuko dugu. Jarraituko du...

Okil Beltzak ☺

Zorionak gure herriko klub eta kirolariei

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak, Kirol zinegotzi Ricardo Garate buru dela, zorionak eman nahi dizkie gure herriko saskibaloi, xake eta esku-baloi taldeei Gabi Jatetxea, Mekatar eta Alcorta taldeek, hurrenez hurren, denboraldi guztian zehar egin duten lan onari esker, mailaz igotzea lortu dutelako. Bestalde, Lagun Taldea klubeko infantil mailako txirrindulari den Imanol Alvarez ere zoriondu nahi du, Euskadiko txapelketan bigarren postua eskuratu duelako. Horretaz gain, zorionak eman nahi dizkie, alde batetik, Iñigo Larizi mendi-eskiko Euskadiako Txapelketa irabazi duelako, eta bestetik, Gaizka Loiolari, eski egokitua- ren arloan lortu dituen tituluengatik. Era berean, gure herriko gainerako klubek egin duten ahalegina aintzatetsi eta eskertu nahi du; izan ere, neurri batean edo bestean, guztiak lortu dituzte beraien helburuak, kirolak gure gizarteari dakartzion balore positiboak bultzatuta.

Ramon Mugica ☺

Iritsi dira **Trinitateak**



Jai hotsak iritsi dira. Zapatuan hasi eta astelehenera bitartean, Trinitate jaiak ospatuko dituzte Elgoibarren eta Mendarion. Urtero bezala, danbor hotsak izango dira nagusi Elgoibarko kaleetan, baina ez dira faltako ohiko azoka berezia edota artisau azoka. Berrikuntzak ere izango dira, besteen artean, Egur arte tailerrak antolatutako kaleko margo lehiaketa. Mendaron zuhaitza altxatzearekin hasiko dituzte jaiak bihar, eta trikiti eta bertso doinuak izango dira nagusi.

Ainhoa Andonegi

Trinitate jaiak iristearekin batera, etorriko dira aurten ere danbor doinuak. Atabal elkarteak antolatuta, nagusien danborrada izango da bihar gaueko protagonista, eta domekan, aldiz, Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatutako umeen danborrada.

Ikastolaren 50. urteurrena

Elgoibar Ikastolak 50 urte bete ditu aurten, eta horixe izango da nagusien danborradako gaia. Karroza berezi bat ekarriko dute Mendarotik biharko kalejirarako, eta ikastolaren bueltan dabilzan pertsonak joango dira karrozan. Baina ez da ikastola izango biharko protagonista bakarra. Atabal elkartekoek urtero-urtero hutsik egin gabe danborradara etortzen den artilleria ere omenduko dute: Javier Linazisoro. 86 urteko bergarar honek laguntza handia ematen die antolatzailerik, eta aurten "omenaldi xume bat" egingo diote

Kalegoen plazan, danborrada hasi aurretik. 23:30ean hasiko dira danbor hotsak Kalegoen plazan, eta urteroko ibilbidea egingo dute herriko kaleetan zehar. Hamabost bat abesti joko dituzte, eta 2:00ak aldera amaituko da kalejira. Guztira, 250 bat lagunek hartuko dute parte.

Umeak, domekan

Nagusien lekukoa hartuko dute domeka goizean umeek. Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatuta, 12:00etan hasiko da umeen danborrada kalegoen plazan. Aurten ere karroza ikusgarria aterako dute antolatzailerik, eta kolore txuri-urdina hartuko dute herriko kaleek.

Dantzan.com

Umeen danborrada, baina, ez da izango Inazio Bereziartuak antolatutako ekin-tza bakarra. Zapatu goizean kalejira egin-

go dute musika eskolako txistulari eta trikitilariak, eta arratsaldean ikasturte amaierako dantza jaialdia egingo dute Kalegoen plazan. Ekitaldi horretan Haritz dantza taldeak ere hartuko du parte, eta bukatzean, grabaketa berezi bat egingo dute www.dantzan.com atariaren alde. Hegi eta Arin-Arin doinuak jarraian dituen musika prestatu du Arrabots taldeak, eta Euskal Herriko hainbat talde dantzan grabatu ditu, guztiak batuz bideo bat osatzeko. Haritz dantza taldeak ere hartu du parte egitasmoan, eta orain Elgoibarko herritarrei egin diete bideoan parte hartzeko gonbitea. Larunbatean plaza dantzariz bete eta www.dantzan.com behar dutela aldarrikatu nahi dute. Antolatzailerik jakinarazi dutenez, ez da beharrezkoa dantzaria izatea; nahikoa da ondo pasatzeko eta ataria babesteko gogoia izatea. 18:00etan hasiko da dantzaldia.

EVARISTO VALDES
Ganaduzalea

“Harri Beltzarekin neuk daukat errekorra, eta ez dit inork kenduko”

Evaristo Valdes ganaduzalea omenduko dute bihar, Trinitateetako azoka berezian. Urte askoan ekarri izan ditu ganaduak Juanategi baserritik kalera, baina orain dela urtebete inguru garun isuria izan zuen, eta aurten ez du animaliarik ekarriko. Bera etorriko da, emaztea eta seme-alabekin, eta bera izango da protagonista.

Urtebete inguru pasatu da garun isuria izan zenuenetik. Zer moduz zaude? Orain hobeto nago. 70 urte egin berriak nituela izan nuen lehen isuria, eta orain dela hilabete inguru beste bat izan nuen. Oinez ibiltzeko arazoak ditut, eta hizketan egiten ikastera joaten naiz logopedarengana.

Omenaldia egingo dizute bihar, Trinitateetako azoka berezian. Zer sentitu zenuen hori jakitean? Sorpresa handia hartu nuen, eta izugarri poztu nintzen. Ohore bat izan da niretzat.

Azkenekoz sekulako erakustaldia egin zenuten Harri Beltzarekin. Zer dauka harri horrek? Harri zaila da, baina dema hori sekulakoa izan zen. Erronka guztiak gainditu nituen proba horretan. Plaza jendez gainezka ikustean oso urduri jarri nintzen, baina proba ederra izan zen. Elgoibarren egin izan den probarik onena; eta errekorra neurea da. Idi-demak bi idirekin izaten dira, eta ez hirurekin. Hiru idi zituelako irabazi zuen besteak, baina idi parearekin neuk daukat errekorra, eta ez dit inork kenduko. 21 plaza egin nituen, eta Harri Beltzaren historian sekula ez da horrelakorik egin.

Asturiarra zara jaiotzez. Nola iritsi zinen Elgoibarrera?

Asturiaseko herri txiki polit batekoa naiz, Cudillerokoa. Baserrian



bizi nintzen han ere, animalia artean. Herrian bertan zegoen gure baserria, eta animalia asko genituen, oso handiak. Nik ez nuen Asturias utzi nahi, baina aitak etxetik bidali ninduen. Donostian egon zen gerra garaian, eta euskaldunak munduko pertsonarik onenak zirela esaten zuen. Euskaraz ez nekiela esaten nion, baina oso ondo moldatu naiz. Lehenengo Metala baserrian bizi izan ginen, baina ufalekin urak hartzen zuen etxea. Emaztea Juanategi baserrikoa da, eta ahal izan genuen bezain pronto, Metala utzi eta Juanategira etorri ginen. Nire lagun guztiak baserritarrak dira, baina oraindik ez dut euskaraz egiten ikasi. Oso pozik bizi naiz baserrian, eta zoratuta ere ez nintzateke kalera jaitsiko. Leku hau paradisua da niretzat.


Nondik dator kizu animaliekiko zaletasuna?

Beti bizi izan naiz animalia artean. Behi eta idi artean jaio nintzen eta umetan ikasi nuen animaliak maitatzen. Beste lau anaia daukat, eta haiek ez dute ganaduari buruz ezer jakin nahi, baina nik ezin dut animaliarik gabe bizi. Orain dela astebete saldu nuen azken idi pare, Harri Beltzaren demarako erabili nuena, eta kamioia etorri zenean animalien bila begiratu ere ezin izan nuen egin. Nire semeak balira bezala maite nituen, eta pena handia hartu nuen. Baina orain nagoen moduan egonda ezin nituen zaindu, eta emaztearen arduraren ere ezin nituen laga. Zamudioko aberats batzuek erosi dituzte, 150 behi eta 18 idi dituzte. Egunero akordatzen naiz nire idiekin. Guk oso ondo zaintzen genituen, eta espero dut jabe beriek ere ondo zaintzea.

AZOKA, ZAPATUAN

Elgoibarko baserrietako produktu eta animaliak izango dira protagonista bihar, Trinitateetako azokan. Era berean, kalitatezko produktuak dastatzeko aukera ere izango dute bertaratzen direnek. Eguerdia arte, Luma gorri oilasko eta aire librean hazitako Basa txerri txerri pintxoak salduko dituzte. Ondorengo baserritarrek hartuko dute parte azokan.

ANIMALIAK	BASERRIKO PRODUKTUAK
<p>ARIZTITXIKI: Pirenaika GARATE: Pirenaika UBA HAUNDI: Limusinak Egi: Astoak ARMATXA ERDIKOA: Astoak ORUBE: Limusinak BERDESKUNDE: Pirenaika ZULUETABEHEKOA: Blondak IRUNASO: Betizuak, ardiak, pottokak AKEI: Enkarterrietako astoak ALDAZELAI: Zaldiak ZALDI ERREKA: Zaldiak IRUNABERRI: Behorrak, zaldia</p>	<p>ZABALETA: Barazkiak MAUSTXA: Gazta LIZUNDIATXABOLA: Gazta, ogia, intxaurrak MINTXETA: Gazta BASUETA: Barazkiak, arrautzak, esnea... EGUENTXIKI: Barazkiak TXILLARRE: Nekazariza ekologikoa MIRIAM ONANDIA: Barazkiak</p>



ARTISAU AZOKA, DOMEKAN

Urtero bezala, artisau lanek hartuko dute Lekueder parkea domeka goizean. 10:30etik 14:30era bitartean, denetariko artisau lanak ikusi eta erosteko aukera izango dute azokara gerturatzen direnek. Besteak beste, bitxiak, egurrezko lanak, buztinarekin eginiko figurak, beirazko lanak edota ehunak aurkituko dituzte bertaratzen direnek. Aurten, Euskal Herriko hamazazpi artisten lanak jarriko dituzte ikusgai, eta horien artean, ondorengo elgoibartarrek hartuko dute parte.



- Irati Agirreazaldeggi: Bitxiak
- Jose Julian Marquez: Bonsaiak
- Xebas Larrañaga: Buztingintza
- Juani Vergel: Eskulanak
- Xabier Isasti: Egurrezko lanak
- Domingo Miquela: Egurrezko lanak
- Xarlem Creations: Ehunak
- Arturo Andrade: Lutheria tailerra
- Jose Membrillera: Eskulanak
- Emi Nogales: Margoak

BERRIKUNTZA, MARGO LEHIAKETA

Egitarauko berrikuntzen artean, Egur arte tailerrak antolatutako kaleko margo lehiaketa nabarmendu behar da. Ume zein nagusiek hartu dezakete parte, eta margolanen gaia Elgoibar izan beharko da. Lehiaketan izena eman nahi dutenek Kultur Etxeko sotoan agertu beharko dute domekan, 9:00etatik 10:00etara bitartean, eta lanak 13:00etatik 14:00etara bitartean entregatu beharko dituzte Kultur Etxeko sotoan. Sari banaketa 14:30ean izango da. 16 urtetik gorako mailan bi sari banatuko dituzte: irabazleak 800 euroko saria jasoko du, eta bigarrenak 400 euroko beste sari bat. Umeen kategorian hiru maila bereiztu dituzte adinaren arabera, eta maila bakoitzeko irabazleak margotzeko materiala jasoko du.


MENDARON ERE TRINITATEAK

Mendaron ere ospatuko dituzte Trinitate jaiak, herriko eraikin zaharrenaren inguruan. Astigarribiako San Andres basilizarekin batera, Mendaroko eta bailarako ermitarik zaharrena da Trinitateko eliza. Mendaroko Trinitate jaiak tradizio handikoak dira, eta Elgoibarko jaiak ere han dute jatorria. Historia liburuetan jasotakoaren arabera, garai batean ganadu eta barazki feria handia egiten zen Mendaron, eta jai hori Elgoibarrera eraman zuten gerora. Azokarik egin ez arren, jaiari eutsi diote mendaroarren, neurri handi batean Mendarozabal auzoko talde batek eginiko lanari esker. 1958an hartu zuten Trinitateak antolatzeko ardura, eta gaur egunera arte eutsi diote.

Jai herrikoiak dira Mendaroko Trinitateak, eta urtetik urtera, gorabehera handirik gabe prestatzen dute egitaraua. Hasiera Elgoibarko jaiekin batera izango dute ekainaren 2an, baina Mendaron astelehenean amaituko dira jaiak.



Bitoriano Loiola 'Ospas' eta Sabin Longarte iazko Trinitate jaietan.



TRINITATEAK MAALAKO JAI BATZORDEA

2 ZAPATUA

11:00 Sagardo lehiaketa

Hamar bat etxetako sagardoa dastatzeko aukera egongo da, Lekueder parkean.

2:00 Burua erabill festa

Gaztetxean. Buruan zerbait eraman behar da.

Zigor DZren emanaldia egongo da.

TRINITATE JAIK ELGOIBARREN

2 ZAPATUA

10:00 Trinitateetako azoka

berezia

Lekueder parkean: Elgoibarko baserrietako produktuen salmenta eta dastatzea.

Aita Agirre plazan: Elgoibarko baserrietan hazitako abereen erakusketa.

10:30 Kalejira

Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako trikitilarien eta txistularien kalejira.

12:00 Herri kirolak

Idi-dema erakustaldia Egoitz Armaolearen 'Belarreta' hiru idiekin.

Kalebarren plazan.

Jarraian: Evaristo Valdesi omenaldia.

18:00 Dantza jaialdia

Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasleen dantzaldia.

Udal Txistulari Taldeak eta Haritz Euskal Dantzari Taldeak parte hartuko dute. Kalegoen plazan (euria izanez gero, Kiroldegian).

23:30 Nagusien danborrada

Udal Musika Bandarekin, Kalegoen plazan.

3 DOMEKA

9:00 Diana

Udal Txistulari Taldearekin.

9:00 I. Kaleko Margo Lehiaketa

Egur taldeak antolatuta, umeentzat eta nagusientzat. Izenematea, Kultur Etxeko sotoan.

9:00 Ehiza txakurren lehiaketa

San Huberto Kopa, Larraskandan. Antolatzailea: La Union elkarte.

10:00 Artisau azoka

Lekueder parkean.

11:00 Meza nagusia

Parrokiko Abesbatzaren laguntzaz, San Bartolome parrokian.

12:00 Haurren danborrada

Antolatzailea: Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskola.

13:00 -14:00 Margo Lehiaketaren lanak entregatzea

Kultur Etxeko sotoan.

14:30 Kaleko Margo Lehiaketaren sari banaketa

17:30 Erraldoi eta buruhandiak

Zezenzikletekin, Elgoibarko Dultzaineroekin batera.

TRINITATE JAIK MENDARON

2 ZAPATUA

17:00 Zuhaitz jasotzea, kanpai errepika eta txapliguak

Ondoren, Bizi Poza txarangarekin kalejira

3 DOMEKA

10:00 Kalejira, Mendaroko Txistulari Taldearekin.

11:30 Meza Nagusia

Elizako abesbatzak abestuko du, eta Ameikutz musika eskolako ikasleen ekitaldia izango da.

Ondoren, Txistulariak eta Ospas eta Sabin trikitilariak

12:30 Herri kirolak

4 ASTELEHENA

11:00 Meza Santua, Trinitateko basilikan.

12:00 Ikastolako bertso saioa

Ondoren, hamaitetako, Laja eta Landakandarekin

14:30 Herri bazkaria, Toki Alai jatetxean.

20:30 Herri afaria, Laja eta Landakandarekin eta bertsolariekin, Aizpe elkarte



ESKERTZA

IMANOL ARRIOLA ZABALETA

2012ko maiatzaren 14an hil zen, 83 urte zituela
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

JOSE URAIN LAZKANO

2012ko maiatzaren 26an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

SABIN INTXAURRAGA REKALDE

2012ko maiatzaren 26an hil zen, 78 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

MANUELA ANSOLA AYERDI

2011ko ekainaren 1ean hil zen, 63 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, ekainak 2,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



I. URTEURRENA

BEGOÑA BADIOLA JUARISTI

2011ko ekainaren 6an hil zen, 63 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, eguaztena, ekainak 6,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



I. URTEURRENA

BEGOÑA MUGURUZA CENDOÑA

2011ko maiatzaren 28an hil zen, 77 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, ekainak 2,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



aitzol urain

Bigarren urtez jarraian Plazatik Gaztetxera txapelketan izena eman du Aitzol Urainek (Mendaro, 1986). Markinako kanporaketan, bigarren egin zuen, Aitor Salegi zestoarra lagun hartuta, eta horrenbestez, hurrengo fasera sailkatzeko aukerak dituzte, bikote irabazleaz gain, puntuaziorik onena duten lau bikoteak ere sailkatuko direlako.



Ainara Argoitia

Aitzol Urain Aingeru Guardako jaietan, Andoni Egañarekin.

“Lagunartean gozatzeko bidea da niretzat bertsoa”

Plazatik Gaztetxerako azkeneko kanporaketan bigarren egiteki zatoz. Aurten estreinakoz binaka jardungo duzue txapelketa horretan. Zer balorazio egiten duzu orain artekoaz?

Markinan bigarren gelditu ginen, bai, baina egia aitortu behar badizut ez nintzen batera eroso aritu. Lotuta jardun nuen bertsoan. Urte guztian ez gara asko ibiltzen plazan kantuan, eta igartzen da. Txapelketa izateak berak ere sortzen du halako tentsio puntu bat, eta horrek berak ere ez du asko laguntzen. Gaiek jokoa ematen zuten, baina neu ibili nintzen gaizki. Edozelan ere, txapelketa polita da Plazatik Gaztetxera, plazan gutxi ibiltzen garenontzako aukera

politak. Laguna ere primerakoa jarri didate, gainera: iaz buruz burukora iritsi zen Aitor Salegi; txispa handiko mutila.

Bigarren urtea duzu Plazatik Gaztetxera txapelketan. Iaz, herrian bertan egin zenuen debuta. Herrian ala herriatik kanpora jarduten duzu erosoago?

Herrian. Mendaron ezagutzen naute, eta badakite zer eman dezakedan. Kanpotik kantura datorrenarengandik beti espero izaten da gehiago, eta horrek kezkatzen nau kanpora doana neu naizenean. Egia da, hala ere, iaz oso urduri ibili nintzela aurreko egunetan. Lehenengo aldia zen, eta ez nekien bertsoa amaitzeko gai izango nintzen ere.

Gertukoaren aurrean errazago aritzen zarela

diozu. Aldiz, Mendaroko Gaztetxean kantatu zenuen hartan, ez joateko eskatu zenien etxekoei. Nola ulertzen da hori?

Eurengan pentsatuz esan nien ez joateko, ez niri trabarik egiten zidatelako. Ni ezinean ikusiz gero asko sufririko zutela jakin banekielako esan nien ez etortzeko.

Zeintzuk dira zure ustez txapelketa honetan begiz jo beharreko bertsolariak?

Mikel Olaizola eta Eneko Beretxinaga. Maddi Sarasua eta Aimar Karrika ere gustatu zitzaizkidan Mutrikun, baina nik lehenengo bien alde egingo nuke.

Nola, noiz eta norengandik jaso duzu bertsozaleatasuna?

Ez dakit ba. Gure etxe bueltatik ez behintzat.

Umetan, Alain Ulazia eta Enez Ezenarrok bertso eskola antzeko bat sortu zuten Mendaron, eta han ibili ginen gu ere. Koadrilan jotzen ginen, eta pare bat urtean ibili ginen. Jaietarako txosnetan egiteko antzekiren bat prestatu eta hala ibiltzen ginen, gustura. Babiliteke han erne izana nire bertsozaletasuna, baina garbi ez dakit.

Noiz eta non kantatu zenuen lehenengoz jende aurrean?

Santa eske batean, orain lau bat urte-edo. Mañukortari ondoezak eman, eta Jabier *Billale* [Jabier Urbiet] bakarrik gelditu zen koplatarako, ordura arte bertso lagun izan zuen Juanito Loiolak Mañukortaren lekua bete behar izan zuelako Arnoaten. Ia lagunduko nion galdetu zidan Jabierrek, eta lotsa handirik ez daukagunez, baietza eman nion. Gustura aritu nintzen, nik neuk uste baino hobeto, eta Itziarko bertso eskolan eman nuen izena gero. Orduetik urtero irten naiz santa eskean, baina hein handi batean halakoetara mugatu naiz: babajanak, trikitipoteoak...

Zerk bultzatu zintuen bertso eskolan izena ematera?

Inguruak. Ni neuk gustura egiten nuen bertsoan, eta lagunek sarri esan zidaten hasteko, eta halaxe. Astean behin batzen gara Itziarren, eguen iluntzetan.

Zein da zure ustez zure dohainik handiena?

Bertsotarako? Lotsa gutxi izatea, beharbada. Bertsolari on asko daude ezkutuan, jende aurrean kantatzeak erreparoa ematen dielako, eta nire moduko asko gabiltza batera eta bestera, jende aurrean kantatzeak lotsarik ematen ez digulako.

Mendarok ere eman du bertsolari handi bat: Eusebio Mugertza Txirristaka. Izen bereko tabernan eman dituzu zuk zure lehenengo pausoak bertsoan, koadrila publikotzat zenuela. Iaz, Plazatik Gaztebaxera txapelketan, koadrilari eskaini zenion agurra.

Koadrilak bultzada handia eman dit, bai. Entzuten norbait izatea ere ezinbestekoa du bertsolariak, eta nik hor izan ditut beti. Zenbat burukomin eman diegan mozkortutako aldietan... Koadrilakoak ez badira, zein egongo ote litzateke gure txapak entzuteko prest! **Zein, neurri, doinu eta lekutan jarduten duzu gusturen kantuan?**

Lagun artean, dudarik gabe. Taberna giroan kantatzen dut nik errazen. Ez naiz ni oholztan gaia emanda serio-serio kantatzeko jaioa. Neurriari dagokionean, zortziko handia da nire gustukoena, eta gaietan... gaietan umore kontuak nahiago ditut gai serioak baino. Gero guk umorea sortzen dugun beste kontu bat da, baina nik erosoago jarduten dut gai horien bueltan.

“Arrankatu ezinik gelditzeak edo bertsoa bukatu ezin izateak kezkatzen nau”

Ez dakit ba garai onenean jaio zinen... Ez al zaizu iruditzen beranduegi jaio zarela?

Bai, ezta? Gustatzen zait bertsogintza modernoa ere, baina entzuteko.

Doinuak eta neurriak ikas daitezke, baina iritziak eman behar ditu bertsolariak. Bertsolari oro-jakilea izatea ere eskatzen zaio gainera gaur egun. Zelan bizi duzu beti iritzia eman behar izate hori? Inoiz gertatu zaizu zer esan ez dakizula gelditzea?

Ez da erraza, ez pentsa. Erosoa ez da behintzat. Neure azaletik kantatzea gustatzen zait neri, baina, ez daukat arazorik publikoak entzun nahi duen hori kantatzeko ere. Gai konprometituetan, bestalde, beti izaten dira bideak gauza handirik esan gabe ihes egiteko, eta beraz, ez nau horrek gehiegi kezkatzen. Egia esan, gaia emanda ere ez naiz sarri jardun, eta zer esango dizut ba nik! Hala ere, gaia ezagutzeak laguntzen du, bai, bertsotarako, baina ez zait iruditzen ezinbestekoa denik.

Bertsotarako deitzen dizutenean zein izaten da zure kezka edo beldurrik handiena?

Arrankatu ezinik gelditzeak edo bertsoa amaitu ezin izateak kezkatzen nau. Pasa zitzaidan Markinan ere. Mikrofonoa jarri zidaten gaiztat, eta eskuan hartu nuenean, han-txe gelditu nintzen zer esan ez nekiela.

Miresten duzun bertsolari bat?

Garai batekoen artean, Lazkao Txiki beharbada, eta gaur egungoen artean, Amets Arzallus. Andoni Egaña bera ere bai, jakina, baina gazteagoen artean, Ametsen bertso-kerak da entzuteko errazena.

Egaña aitatu duzula... Iaz, berarekin kantatzea egokitu zitzaizun Aingeru Guardako jaietan. Plazan kantatzen zenuen lehenengo aldi-tako bat izan zen, lehenengoa ez bazen. Zer oroitzapen dituzu?

Konpromiso ederrean jarri ninduten, bai. Aurrez esan zidaten beharbada kantuan egin beharko nuela, baina hara iritsi eta Andoni etorri zitzaidanean esanez Lizasoren ordezkari egin behar nuela bertsoan... hura zen dardara! Egia esan, baina, asko lagundu zidan Egañak. Bertsolari on batekin kantatzeak hori dauka ona: lagundu egiten dizula, zer esana ematen dizula. Erantzuna ia-ia berak ematen dizu. Seguru nago ideia on asko etorriko zitzaizkiola burura, baina ez zituela denak esan, niri biderik ez ixteko. Astiro-astiro jardun zuen, niri pentsatzeko aukera emateko, eta eskertzekoa da hori. **Zure ustez, zer daukazu zuk berezkoa eta zer ikasitakoa?**

Bertsoa zer da zuretzat: helburua ala bidea?

Bidea. Nire helburua ez da inondik inora bertsolari izatea. Lagunartean gozatzeko bidea da niretzat bertsoa.

Zer kantatuko zenioke gustura?

Ez dakit, baina gustura Jabier *Billaleri* kantatu nion behin, santa eske batean. Zer esan nion ez daukat gogoan, baina leihora irten zenean gustura egin nuen koplatan, neurri handi batean berak eman zidalako hasteko bultzada.

Askok esaten dute bertsolari izateko etxeratzeko ordurik ez izatea ere garrantzitsua dela. Ezaugarri hori behintzat betetzen duzu.

Ez gara atzean gelditzen, ez. Gure etxean ere hala ikusten dute. Parrandan ibiltzeko aitzakiazat ikusten dute bertsoa. *Jajaja*. Golfo bizimoduaren parte.

Txirristaka tabernak irabazi du Mendaroko estreinako pintxo lehiaketa

Uztargik, Menditxok eta Luzaidek ere jaso dute aipamen bana

Pintxo lehiaketa antolatu du aurten estreinakoz Mendaroko Udalak, eta izandako arrakastarekin oso gustura agertu dira bai parte-hartzaileak eta baita antolatzaileak ere. Sei tabernak parte hartu dute guztira, eta lau saridun izendatu dituzte: epaimahai batek aukeratutako lehenengo hiru pintxo onenei dagozkienak, eta herritarrek aukeratutako pintxorik onenari dagokiona. Landa errete-giko Asier Landa sukaldariak, Eneko Ulazia Kultura zinegotziak eta herritar batek osatu dute epaimahaia, eta Txirristaka tabernan prestatutako pintxoak izan da haien ustez lehiaketara aurkeztutako sei pintxoaren artean onena. Bakailau, piper, berakatz eta tipularekin egindako pintxoak, hain zuzen ere.



Pintxo lehiaketan parte hartu dutenetako lau Sonia Garcia alkatearekin. Besteak beste, irabazlea falta da.

Bigarren saria, garaikurra eta diploma, Uztargi tabernak jaso zuen, eta hirugarren saria, berriz, Menditxo tabernak.

Herritarren pintxo gustukoeneri dagokion saria, berriz, Luzaide tabernak jaso zuen.

Ikastolako haurren galderei erantzun zieten udal agintariak osoko bilkura berezian



Udalbatzaren osoko bilkura berezia egin zuten martitzenean Mendaron, Debegegak sustatutako Eskolako Agenda 21 ekimenaren barruan. Mendaroko ikastolako laugarren, bosgarren eta seigarren mailako ikasleek mugikortasunaren alorrean Mendarok dituen gabeziak zerrendatu zituzten, eta dozenaka galdera egin zizkieten Sonia Garcia alkateari, Borja Rodriguez alkateordeari eta Nerea Larrañaga Kultura teknikariari. Agintariak banan-banan erantzun zieten eskola-umeek egindako galderei.

Bide zaharrak auzolanean garbitzeko deia egin du Nekazaritza lan-taldeak

Garai bateko bide zaharrak garbitzeko prest dauden mendarorrei ekainaren 5ean, 19:00etan, udaletxeko pleno aretoan egingo duten batzarrera dei egin die Mendaroko Udalak. Nekazaritza Lan Taldean sortu zen antzinako bideak auzolanean garbitzeko ideia, eta horri gortza eman nahian ari dira orain. "Apirilean jokatzen mendi lasterketarako, Mendaroko Txirridulari Elkarteak Santa Kurutzetik Garagartzara arteko [mojen komentua zegoen lekura arteko] bide zati bat garbitu zuen, goiko aldea, eta horri jarraipena eman nahi diogu", adierazi du Eneko Ulazia Kultura zinegotziak. Momentuz hiru bide garbitzea aurreikusi dute: Santa Kurutzetik Garagartzara arteko hori, Gau-pasa elkarte baina goragoko bihurtzetik Berasaluzerainoko bide zatia eta Errementaritik Erentzara artekoa. Ekainaren 5eko batzar horretan erabaki dute noiz egin eta zerekin hasi.



Mendaroko Trinitate basiliza inguruko horma zaharra berritu dute:

“Zorionak eta eskerrik asko, lan bikaina egin duzuelako auzolanean. Herritar guztiontzat eredu ona zaretela esan behar da. Auzolana berreskuratzea ez legoke batere gaizki gaur egungo gizarte zoro honetan. Eskerrik asko!”.



Txalo bero bat Eguren orkestrarentzat: “Sekulako giro ona jartzen du Eguren orkestrak Jubilatuen Egoitzan, eta txalo bero bat merezi dute. Horrez gain, Udalarri eskatu nahi diogu udako domeketan Eguren orkestraren emanaldiak plazan jartzeko, lehen egiten zuten bezala. Eskerrik asko”.

Txalo bero bat Ludotekako langileentzat: “Eskerrik asko, gurasoen partez Ludotekako langileei, (Txusemi, Maria eta Ibai), joan zen larunbatean txango ederraz gozatu genuelako Karrantzan eta Pozalaguan. Primeran antolatu duzue, eta oso ondo pasatu genuen”.



Eskerrik asko Udala Musika Bandari: “Elgoibar Ikastolaren izenean, eskerrak eman nahi dizkiegu Udala Musika Bandari eta Elgoibarko Udalarri, larunbatean, maiatzaren 26an, Kalegoen plazan eskainitako kontzertu ederrarengatik. Baita, bertaratu zinetenoi eta ekitaldian parte hartu zenuten guztioi ere. Giro bikaina izan genuen!”

Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com 943 744 112

Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta

ingeniaritza **imh**

Aurrematrikula: izen ematea

Zikloetan ekainaren 8 arte

Informazioa 943744132 telefonoan edo www.imh.es

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

aukera berria:

alternantzia

Fabrikazioan eta Muntaian!

TXANDAKAKO INGENIARITZA

gradu berria:

Azken informazio saioa ekainaren 13an

Erdi-maila

- Mekanizazioa
- Mantenu Elektromekanikoa *

Goi-maila

- Fabrikazio mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrial *

Gradu berria*

- Prozesu eta Produktu Berrikuntzaren Ingeniaritza (bideratzen)

berria

berria

berria

Sei kopa irabazi dituzte Sanlo eskubaloi klubeko taldeek aurtengo denboraldi honetan

Zaleei eskerrak eman dizkie klubak urte guztian emandako babesagatik

Sanlo eskubaloi klubeko bost taldek irabazi dute denboraldi honetan Gipuzkoako Kopa txapelketa: Pneumax, Lauko, IMH, Astigarraga eta Tecnifuelle. Azken honek, senior emakumezkoen taldeak, Euskadiko Kopa txapelketa ere irabazi du aurtan. Hortaz, sei kopa gehiago batu ditu Sanlok garaikurren bilduman. Gainera, ezin da ahaztu, Liga txapelketan lehen postuan amaitu eta gero, Tecnifuellek igoera fasea jokatu zuela Olaizaga kiroldegian.

Era berean, Kopa irabazterik lortu ez badute ere, Lauko eta IMH taldeak Euskadiko Kopa finalera ailegatu dira, eta Gipuzkoako Kopako finala galdu berri du Alcantak, Eibarren aurka. Aurrekoetz gain, bigarren urteko alebinek irabazi duten Liga txapelketa nabarmendu dute Sanloko



arduradunek. Baina, guztien gainera, bi talde nagusiek, Tecnifuellek eta Alcantak, egin dituzten denboraldiak txalotu ditu klubak.

Era berean, zaleen babesera ere eskertu dute Sanloko kideek, urte osoan hutsik egin ez dutelako. Horrez gain, laguntza

eman dieten enpresei eta erakundeei ere eskerrak eman dizkiete, bereziki, Elgoibarren antolatu dituzten Igoera Faseak prestatzen laguntzeagatik. Azkenik, barkamena eskatu diete gainerako kirol taldeei, Olaizaga kiroldegia uste baino gehiago erabili behar izan dutelako.

Herri Eskolako taldeak hirugarren postua lortu du Gipuzkoako Atletismo Txapelketan



Herri Eskola ordezkatzan duten Mintxeta Atletismo Taldeko atletak hirugarren postua eskuratu zuten, taldeka, Ordizian jokatu zuten Gipuzkoako Eskolarteko Atletismo txapelketan. Johan Rodriguez, Martin Hernandez, Asier Zabaleta, Ander Armendia, Eneko Bermejo eta Mikel Morcillo atletak osatzen dute taldea, eta bakoitzak bere mailan lortutako puntuak batuta lortu zuten elgoibartarrek podiumera igozea.

Zuberoara irteera ekainaren 15ean

Morkaiko mendizale elkarteak Zuberoara irteera antolatu du ekainaren 15eko astebururako. Maule inguruan egingo dute ibilaldia, eta Chateau-Libarenx-eko jauregian hartuko dute ostatu. Oinez zein mendi bizikletaz egiteko irteera prestatu dute. Bazkideek 75 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 85 euro. Izenematea elkartearen egoitzan egin daiteke, astelehen eta eguenetan, edo bestela, Internetez. Informazio gehiago, www.morkaiko.net atarian.

Bolari Eguna eta Hiru Txirlo txapelketako azken saioa

Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketako azken jaurtialdia jokatu dute bihar Eibarren, eta bide batez, Bolari Eguna ospatuko dute. Eibarko Asola Berri elkartearen 50. urteurrena dela eta, oroigarria emango diete hango kideei. Bazkalostean txapelketako sariak banatuko dituzte.

Kalkutako muturreko pobrezia erretratatzeko egindako argazkiak erakutsiko ditu Javier Arcenillasek Kultur Etxean

Gaur zabalduko dute erakusketa eta ekainaren 16ra arte egongo da zabalik

Kalkutako miseriaren berri eman- go du Javier Arcenillas argazkila- ri bilbotarrak bihar Elgoibarko Kultur Etxean zabalduko duen *Sleepers* argazki erakusketan. Ongarri Argazki Taldeak antolatu du erakusketa, Elgoi- barko Udaleko Kultura Sailarekin elkar- lanean, eta ekainaren 16ra arte egongo da zabalik, astelehenetik zapatara, 18:30etik 20:30era.

Freelance moduan aritzen da Arceni- llas, munduan barrena errealtatearen gor- dinena erretratatzeko. Bere aurreko lana, *Si- cario* izeneko bilduma, esate baterako, La- tinoamerikako indarkeriari eskainitakoa izan da. Bangladeshen eta Indian ere inte- res antropologikoko lan handia egin du Ar- cenillasek. Elgoibarren erakusgai jarriko di- tuen argazkiak ere Indiar, zehatzago esa- teko Kalkutara, egindako bidaia batean ateratakoak dira, eta estrainekoz jarriko di- tu ikusgai. 2009 eta 2010. urtean egindako argazkiak dira guztiak, baina zoritxarrez ez



dute gaurkotasunik galdu.

“Ukiezinak Kalkutako urbeetan gau- ero lo ikusteak hunkitu eta beldurtu egiten

du. Indiako hiri honetako biztanlegoaren herena kalean bizi da”, dio argazkilariak bere lanaren gainean.

Herriko gizarte bizitza irudikatzen duten argazkiak hartuko ditu kontuan Udalak 2013ko egutegirako



Elgoibarko gizarte bizitza irudikatzen duten ar- gazkiak hartuko ditu kontuan Elgoibarko Udalak 2013an argitaratuko duen egutegirako argazki lehiaketan. Udaleko Euskara Sailak eta Ongarri ar- gazki elkarteak elkarlanean antolatzen duten ekime- na da honako hau. Lehiaketan Elgoibarren jai- o, bi- zi, ikasi edo lan egiten dutenek parte hartu ahal izango dute, eta parte hartzaile bakoitzak gehienez ere sei argazki aurkeztu ahal izango ditu lehiaketa- ra. Argazkiak Elgoibarkoak izan beharko dira ezin- bestean, argazkietan Elgoibarko herriari erreferen- tzia zuzena egitea delako bete beharreko baldin- tzetako bat.

Argazki lehiaketaren oinarriak irailean argitaratu- ko dituztela jakinarazi dute Udalak eta Ongarri elkar- teak, baina informazio gehiago nahi duenak Kultur Etxean eskuratu ahal izango du, Euskara Sailean.

Bukatu dira Herriko Antzokiko zine emanaldiak

Maiatza amaitzearekin batera bukatu dira Herriko Antzokiko zine emanaldiak, eta uztailean aire li- breko zinea hasiko da, Kalegoen plazan. Programazioa irailean abiatuko da berriz ere, Ongarri zi- neklubaren emanaldiekin, eta urrian, zine komertzialaren progra- mazioa hasiko da.

Gaur arratsaldean itzuliko da Kiribil Kalegoen plazara

Astebetetz atzeratu zuen Elgoi- barko Izarrak Kiribilkaren bigarren saioa, eta, beraz, gaur arratsalde- an izango da. 17:30ean iritsiko da Kiribil Kalegoen plazara, eta Eus- kal Dantzak izango da gaurko saio- ko gaia.

Elgoibar Ikastolari eskaini zion zapatuko kontzertua Udal Musika Bandak

Ekainaren 9an egingo dute 50. urteurreneko ospakizun ofiziala

Elgoibar Ikastolaren 50. urteurreneko ospakizunen barruan kontzertua eskaini zuen Udal Musika Bandak joan zen zapatuan, eta kantuan jarri zuen Kalegoen plaza. Kontzertu berezia izan zen, eta ikusleak dantzan jarri zituen Bandak. Musikariak abesti herriko ezagunak jotzen hasi zirenean, koru erraldoi baten itxura hartu zuen plazak.

Omenaldi eta aipamenak

Aurten 50 urte betetzen dituela-eta opari bat ere egin zion Elgoibarko Udal Musika Bandak Elgoibar Ikastolari. Txomin Mujika musika bandako zuzendariaren eskutik jaso zuen oparia German Meababasterretxeak, Ikastolako lehendakariak. Era berean, Regina Arrieta Soraizi ere pieza bat eskaini zioten. Musikari gazteek osatzen dute gaur egun Udal Musika Banda, eta gehienak Reginaren ikasle ohiak direla aipatu zuen oholntza gainetik Txomin Mujikak. Makina bat urtean musika irakaslea izan da Regina Arrieta Elgoibar Ikastolan.



Ekainaren 9an Ikastolaren Eguna

Ekainaren 9a izango da 50. urteurreneko ospakizunen artean egunik handiena. Herrigunean hasiko dute eguna, eta Ikastolan amaituko dute. Antolatzaileak herriko hainbat eragileren laguntza izan dute egun horretarako, eta, besteak beste, Elgoibarko musika eta dantza talde guztiak batuko dira jaira. Dultzaineroen ekitaldiarekin hasiko da eguna, hildakoen omenezko ospakizuna egingo dute gero parrokian, abesbatzaren laguntzarekin, eta harrera berezia egingo diete ondoren udaletxean. Handik, Udal Txistulari taldearekin ikastolarantz abiatuko dira. Izan ere, ikastolako patioan egingo duten bazkaria izango da eguneko ekitaldi nagusia.



Mikel Olaizolak hartuko du parte gaur, Plazatik Gaztetzera txapelketako Elgoibarko kanporaketan



Plazatik Gaztetzera bertso txapelketako laugarren kanporaketa jotakutako dute gaur gauean Gaztetzean, eta Mikel Olaizolak hartuko du parte. Bertsolariak binaka ari direla da aurtengo txapelketako berrikuntza nagusia, eta bertsolari elgoibartarrak Eneko Beretxinagarekin osatuko du bikotea. Txaber Ormazabal eta Inazio Vidal, Julen Soraluze eta Eñaut Uruburu, eta Ion Mikel Mujika eta Aimar Goenaga izango dira gainerako bikoteak. 20:30ean egingo dute afora, eta bertso saioa 22:30ean hasiko da. Interesatuak Iturri, Iratxo edo Lanbroa tabernetan eros ditzateke txartelak.

LANA

ESKAERA

- Ingeles klase partikularrak ematen ditut, etxez etxe.
☎ **943 744 062**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest.
☎ **626 052 165**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest.
☎ **636 419 814**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest.
☎ **699 232 823**
- Emakume arduratsua nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest.
☎ **682 255 834**
- Neska elgoibartarra (24 urte) eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziaduna.
☎ **616 883 097**
- Gizona nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Esperientziaduna.
☎ **686 077 316**
- Emakume arduratsua nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. Orduka.
☎ **646 821 678**
- Emakume arduratsua nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest.
☎ **669 956 017**
- Klase partikularrak ematen ditut: Batxilergoko matematika, LH, DBH, ekonomia eta kontabilitatea.
☎ **666 042 710**
- Neska euskalduna udan umeak zaintzeko prest.
☎ **943 741 042**
- Neska gazte euskalduna udan lan egiteko prest. Ostalaritzan, nagusiak edo umeak zaintzen edo ingeles klase partikularrak ematen egongo nuke lan.
☎ **608 686 814 / 943 741 674**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest.
☎ **630 372 882**
- Emakumea lan bila.
☎ **647 175 893**

- Emakumea nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest.
☎ **636 423 493**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. Orduka.
☎ **648 603 029**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. Orduka.
☎ **616 690 415**

ESKAINZA

- Hemengo pertsona bat behar da umeaz arduratu eta kastolara eramateko. Irailetik aurrera. ☎ **628 623 551**

GARAJEAK

- Garajea salgai Urazandin, Anayak eraikinean.
☎ **943 743 251**

ETXEBIZITZAK

- Lau gelako etxebizitza alokatzen dut Urazandin. Oso eguzkitsua. Altzariekin. Prezio onean.
☎ **943 742 927 / 616 533 646**
- Pisua alokatzen dut Errosario kalean. Logela bat, egongela, komuna eta sukaldea. ☎ **630 374 124**

BESTELAKOAK

- Urrezko eskumuturreko bat aurkitu dut Sigman, josteko makina inguruan.
☎ **626 554 912**
- Elgoibarko itzulian, Otzaurtia baserrian antolatzaileek jartzen duten anoaren pareko etxean, giltz batzuk agertu dira. Udaltzaingoan daude.
- Bikientzako materiala salgai: maxi-cosi, trona... Egoera onean.
☎ **669 754 754 (Eguzkiñe)**
- Giltz sorta bat galdu dut Plaza Txikitik Kalegoen plazara bitartean. Urrutirako mando bat ere badauka.
☎ **943 740 428**

KINTOAK

- 1972an jaiotako elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute irailaren 15ean, Sigma jatetxean. Bolatokian aterako dute erretratua, 13:00etan eta ondoren luntxa egingo dute Tantaka tabernan. Interesatuak 60 euro sartu behar dute, Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan: 3035 0007 22 0071124579.
- 1947an jaiotako elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute ekainaren 9an, Sigma jatetxean. Bolatokian aterako dute erretratua, 13:30ean. Interesatuak 60 euro sartu behar dute, Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan: 3035 0007 24 0071063126. Harremanetarako:
☎ **616 048 946 (Pedro Bergara)**
- 1952an jaiotako elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute ekainaren 16an, Belaustegi jatetxean. Interesatuak 85 euro sartu behar dituzte, Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan: **3035 0007 26 0071124362**. Joan-etorria autobusez.



MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK



Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

> Gradurako Egokitze Kurtsoa Irakasleentzat

Eskoriatza EKAINAK 7 osteguna, 18:00

Goi Eskola Politeknikoa

> Biteri eta Arana Ikastetxe Nagusia

Arrasate EKAINAK 9 larunbata, 10:30



902 110 436

www.mondragon.edu/prest



• Zorionak, **Mikel!** Ur-tetxo bat bete duzu! Zein azkar pasatzen ari den denbora! Muxu handi bat, etxekoan partez.



• Zorionak, **Maialen,** gaur zure urtebetetzea delako. Gure printzesak 3 urte egi ditu jadanik!



• Zorionak **Owen Ortega Migueli** eta haren gurasoei, domekan Owen txikiaren bataioa izango dugulako. Ondo-ondo pasa!



• Zorionak, **Lorea,** zure seigarren urtebetetzean. Familiakoan partez, muxu bat.



• Zorionak, **June,** gaur 6 urte egin dituzulako. Etxeko guztien partez. Muxu bat.



• Zorionak, **Asier,** ekainaren 2an 8 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta arreba Aracellaren partez.



• Zorionak, **Alala,** gaur urtetxo bat egin duzula. Gurasoen eta ahizpa Iratiren partez.



• Zorionak, **Maddi,** datorren asteartean esku bete urte egin dituzulako. Familiako guztien, eta bereziki, Unax eta Aneren partez.



• Zorionak, **Joni!** gaur 2 urte, txapeldun! Patxo handi bat, etxekoan partez.



• Zorionak, **Josu,** igandean 3 urte egingo dituzulako. Bereziki arreba Ane eta familiako guztien partez.



• Zorionak, **June eta Arhane,** zuen laugarren urtebetetzean.



• Zorionak, **Aritz eta Naroa,** astelehenean, hilaren 28an, zuen zazpigarren urtebetetze eguna izango delako. Asteburuan ospakizun berezi bat egingo dugu, merezi duzuelako. Zuen familiakoan partez, muxu handi bana.




• Zorionak, **Haritz!** Asteazkenean 8 urte bete zenituelako. Familia guztiaren partez.



• Azkenean iritsi da egun handia! Ondo-ondo pasa eta disfrutatu, guk hala egingo dugu-eta. Zorionak, Itziarko lagunak partez.



• Zorionak, **Befiat eta Amets,** gaur 10 urte betetzen dituzuelako. Igandean ondo pasa danborradan!



• Zorionak, **Ibai eta Iker,** zuen seigarren eta laugarren urtebetetzean. Patxo handi bat, familiakoan partez.



• Zorionak, **Irune,** oso ondo pasatu genuen zure urtebetetze egunean. Muxuak aitatxo, amatxo eta bereziki Onarren partez.

OSPAKIZUNAK



Eutsi gogor! No hay dolorrrrr!

AGURREN ATALEKO PREZIOAK EGUNERATU EGIN DITUGU

Erretratu bakarreko agurra 4€, argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra 3 €, argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

1 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribilka

Elgoibarko Izarrak antolatuta, 2tik 6 urtera arteko umeentzako eta haien gurasoentzako egitasmoa. Kalegoen plaza.

Hitzaldia

19:30 'Euskal hitz sakonak'

Urbizak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Erakusketa

19:00 'Sleepers'

Javier Arcenillas argazkilaria erakusketa. Hilaren 16ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean.

Bertsolaritza

20:30 'Plazatik Gaztebera'

Afaria egingo dute lehenengo eta bertso saioa 22:30ean hasiko da.

2 zapatua

Kirolak

9:00 Urpekaritzan bataioa

Urbizak antolatuta, Olaizaga kiroldegiko igerilekuan.

3 domeka

Irteera

9:30 Aitzola ezagutzeko ibilaldia

Bi ordu eta erdiko ibilaldia antolatu du Zubibaik, Aitzola ezagutzeko.

5 martitzena

Jaialdia

19:00 Herri Eskolako jaialdia

Herri Eskolako ikasleen kurtso amaierako jaialdia. Herri Eskolan.

6 eguaztena

Jaialdia

19:00 Herri Eskolako jaialdia

Herri Eskolako ikasleen kurtso amaierako jaialdia. Herri Eskolan.

7 eguena

Dantza

20:00 Biraka jaialdia


Biraka dantza taldekoek kurtso amaierako jaialdia egingo dute, Herriko Antzokian.

8 barixakua

Dantza

20:00 Biraka jaialdia


Biraka dantza taldekoek kurtso amaierako jaialdia egingo dute, Herriko Antzokian.



GAMARRAKO IGERILEKUETARA IRTEERA, UZTAILAREN 5ean

LUDOTEKA:
Izenemate epea: ekainak 22
Prezioa: 6 €

GAZTELEKUA:
Izenemate epea: ekainak 28
Prezioa: 4 €



OKINDEGIA	GUARDIAK	Egunez	Gauetz	Fernandez
3 domeka IBARRENEA		9:00 - 22:00	22:00 - 9:00	Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel: 943 756 142
BOTIKA ORDUTEGIAK 9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00		1 Zabaleta 2 Fernandez Goizez: Barrenetxea 3 Fernandez 4 Ibañez 5 Garitaonandia 6 Etxeberria 7 Fernandez	Yudego Barrenetxea Barrenetxea Yudego Garitaonandia Etxeberria Yudego	Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) Tel: 943 751 638 Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



CORDON VILARCHAO

San Roke, 7 behe
Pel. Glaso - Glasgo kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 749 676

DEKORAZIOA

Korpo eta bameko estaldura
Zolak erantzin
Lantekura: eguzi, aluminio, PVC
Pintura orokorra

GRUP
VILARCHAO



INSTALAZIOA ETA ALTZARI HORNIKUNTZA

(L.H. / F.P. - Erdi mailako ziklo berria)

AURREMATRIKULAZIOA
Maiatzaren 28tik ekainaren 8ra

HIRU URTETAN ERDI MAILAKO BI TITULAZIO LOR DITZAKEZU:

- Instalazioa eta altzari hornikuntza
- Arotzeria eta altzarigintza

Matrikula: Uztailak 5etik 11ra
PRAKTIKAK ATZERRIAN (LEONARDO) NAHIZ BERTAN

Altamira auzoa, Azkoitia • 943 85 21 74 • azkoitia@uroala.org

www.uroala.org



LAGUNAK
colchoneria textil hogar

SAN ROKE KALEA, 20
TEL.: 943 744 457
ELGOIBAR
www.textillagunak.com

ATSEDENEAN ETA ETXE-GERIATRIAN ADITUAK

2 ohe eta ohe azpiko kutxa denak altzari bakar batean!

Edozein kolore aukeratu dezakezu.


Mikrofibra edo polilarruzko tapizatueta!



colchoneria



terxy



ELGOIBAR

Orain BAI!

Azken etxebizitzak
San Frantziskon

Exebizitzak
trastelekuarekin

150.000 €-tik aurrera
+ BEZ %4

Bukatutako etxebizitzak
Sukalde ekipatua

Informa zaitetz konpromisorik gabe

943 74 44 67



C/ San Francisco 51, bajo.
Elgoibar



Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

www.sukia.com

Información sobre el uso de cookies en el sitio web de Sukia. Para más información, consulte el enlace "Política de privacidad" en el pie de página.